

'Irati' filmak 105.000 ikusle izan ditu Euskal Herrian bost astetan

Otsailaren 24tik, beste 37.500 lagunek ikusi dute filma Euskal Herritik kanpo • Estreinaldiko asteburuan euskarazko lan batek inoiz izaniko daturik onenak bildu ditu Paul Urkijoren filmak

Ainhoa Sarasola

Bazegoen ikusmina. Kataluniako Zinema Fantastikoaren Jaialdian, Sitgesen erakutsi zuten lehenbizi, Iazko urrian, eta Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astearen ondoren, handik egun gutxira. Durangoko 57. Azokan arrestreinaldi bat ere egin zuten. Baina otsailaren 24ra arte itxaron behar izan zuten ikus-entzuleek *Irati* filma zinema aretoetan ikusi ahal izateko. Heldu zen Paul Urkijoren lana azkenean aretoetara, eta ordurako sortua zuen ikusminaren erakusle dira estreinaldiaren asteburuak utzi zituen datuak: 24.216 lagun bildu zituen filmak Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako zinema aretoetan, eta beste 10.487 Espainiako, Kataluniako eta Galiziakoetan; estreinaldiko asteburuan euskarazko lan batek inoiz bildutako gehien, orain arte. Ibilbide oparoa egiten segitzen du orduetik, eta jada 105.478 lagunek ikusi dute filma Hego Euskal Herriko zinemetan, eta beste 37.464 lagunek oraintxe ikusgai dagoen gainerako aretoetan.

Pozik eta, batez ere, esker oneko dago Urkijo filmak izan duen harrerarekin. «Pelikulak ez dira existitzen edo filmek ez dute zentzurik ikus-entzuleak zinemara



Edurre Azkaraite aktoreak jokatu du Iratiren rola izen bereko filmean. Irudian, filmeko fotograma bat. IRATI FILMA

joaten ez badira. Oso erantzun polita izan du, eta oso eskertuta nago». Lehen asteburuan halako ikusle datuak lortuko zituztenik ez zuela buruan azaldu du, «inoiz ez delako jakiten zer gertatu ahal den». Edonola ere, berak zuzendari gisa ikustea gustatuko litzaiokeena sortzen duela gehitu du. «Nik, pelikulak egitean eta is-



Filmak ez dira existitzen ikus-entzuleak zinemara joaten ez badira. Oso erantzun polita izan du, eta oso eskertuta nago»

Paul Urkijo
Zinema zuzendaria

torioak kontaktzean, espero dut jendeak gustukoa izatea». Sumatzen zuen Sitgesko zein Donostiako jaialdietan erakutsi ondotik —eta bietan ikusleen saria jasota gainera— *Irati*-k ikusmina sortua zuela, «gehienbat Euskal Herrian, euskal mitologiaren eta euskal historiaren inguruko film epiko bat delako, eta izan daiteke-

elako gauza berezi bat». Eta narbitu zuen hainbat lagun ikusteko «irrikatan» zeudela. «Polita izan da, behin estreinatuta, jendea zinemara joan dela ikustea».

Azken asteotan Euskal Herriko udalerririk askotan izan da zuzendaria, emanaldietan filma aurkezten, baita Espainiako zein Kataluniako zenbait hiritan ere. «Nahinuen publikoarekin aurrez aurre hau partekatuz, azkenean, pelikulan herriak niri emandako elezaharrak jaso ditut, eta pelikula herriarentzat ere egin dut; horregonda herriarekin partekatzea polita iruditzen zitzaidan». Bueltan jasotakoa ere ederra egin zaio, jende askok esan baitio «bere» egin duela *Irati*, eta esker oneko hitzak ere jaso ditu halako osagaiak dituen istorio bat errespetuz landu eta zinemara eramateagatik. Baita Euskal Herriatik kanpo ere.


Ipar Euskal Herrian ere, aurkitu Orotara 112 kopia banatuta estreinatzen *Irati*, eta Espainiako Estatuaren gehien ikusitako lanen artean azkar egin zuen lekua. Zinemetan orain arte gehien ikusitako euskarazko filma bihurtu da, 2017an Jon Garaño eta Aitor Arregiren *Handia*-k jarritako 133.296 ikusleren langa gaindituta —Filmak banatzailearen arabera, jada 142.942 ikusle izan ditu *Irati*-k—.

Hego Euskal Herriko aretoetan ikusgai dago oraindik filma, baita beste areto batzuetan ere. Eta Ipar Euskal Herriera ere aurki helduko dela iragarri du Urkijok; Frantziako aretoetarako banatzaile baten bila ari dira, baina, hori baino lehen, Ipar Euskal Herrian estreinatzea da lantaldearen asmoa. «Hemendik oso gutxira» jakinaraziko dute noiz eta non izango den.

berria laguna

Ikusi **Nire zirkua** filma
Gure Zirkuko karpan

Apirilak 15 • 17:00
100 lagunentzako tokia
+ 8 urte
TOLOSA



Tinko
BERRIAK HAZIARAZI DUT

TINKO
ZIRKUA

berria
zirku batzuzuzulako

> Berria.eus/berrialaguna/ekitaldiak